## UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA

**2013ko irailaren 6a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamahirugarren urteko irailaren seian, ortziralea, arratsaldeko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Severiano Txoperena Matxikote lehen alkateorde jaunaren lehendakaritzapean, alkate jaunaren faltan, eta ondoko zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Ainara Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote, Izaro Mitxelena Rekondo, José E. del Río Echeverria, José Luis Echegaray Andueza, Pedro Apezteguia Alzugaray eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Ez dira agertu bere ez etortzea justifikatuta, alkate jauna, Peio Etxabide Gartzia, eta Jose Esteban Echeveste Apezteguia eta Victoriano Ruiz Alvarez zinegotzi jaunak.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako

## SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

**6 de septiembre de 2013**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes seis de septiembre del año dos mil trece, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido en ausencia del señor alcalde por el primer teniente de alcalde, don Severiano Txoperena Matxikote y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, doña Ainara Flores Compains, doña Izaro Mitxelena Rekondo, don José E. del Río Echeverria, don José Luis Echegaray Andueza, don Pedro Apezteguía Alzugaray y doña María Victoria Gortari Aldave.

No acuden, habiendo excusado su inasistencia, el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y los concejales don José Esteban Echeveste Apezteguía y don Victoriano Ruiz Álvarez.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN.**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de

akta onartu du, 2013ko uztailaren 24koa.

la última sesión, celebrada el día 24 de julio de 2013.

**2 – ANTONIA MENDEGUIA MARICHALARREK ESKATURIKO OIHAN PROBETXAMENDUA.**

2013ko uztailaren 2an Antonia Mendeguia Marichalar andreak aurkezturiko eskaera aztertuta (1.986. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), zeina Josefina eta Maria Carmen Mendeguia Marichalar andreek ere sinatzen duten, Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Antonia Mendeguia Marichalar andreak eginiko eskaera, Kopako parajean dagoen 25.000 m2ko lur-eremu batean intsignis pinuren eta alertzeren matarrasa egiteko. Katastroko 9 poligonoko 4 partzelaren I azpipartzelaren zati bati dagokio. (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2013/16).

2 - Interesatuari jakinaraztea, Udalak 2013ko ekainaren 14ko Osoko bilkuran harturiko erabakiarekin bat (José Juan Mendeguia Goyaren oinordekoek eginiko eskaerari dagokionez), Udalari ordaindu beharko diotela arboladiaren balioaren %10a. Hori horrela da jabetza komunaleko finka bat delako, nahiz eta landaketa Jose Juan Mendeguia jaunak egin.

3 – Behin mozketa akabatzen denean, Jose Juan Mendeguia jaunaren oinordekoek ez dute inolako eskubiderik izanen finka horretan.

**2 – APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR ANTONIA MENDEGUIA MARICHALAR.**

Examinada la instancia presentada por doña Antonia Mendeguia Marichalar con fecha 2 de julio de 2013 (entrada nº 1.986 en el Registro General del Ayuntamiento) y que suscriben también doña Josefina y doña María Carmen Mendeguia Marichalar, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por doña Antonia Mendeguía Marichalar para realizar una corta a matarrasa de pino y alerce, en una finca de 25.000 m2, situada en el paraje de Kopa. Corresponde a la parte de la subparcela I de la parcela 4 del polígono 9 del catastro (referencia del aprovechamiento: Oihapart/2013/16).

2º) Comunicarle que, conforme al acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 14 de junio de 2013 (respecto a la solicitud de los herederos de don José Juan Mendeguía Goya), deberán abonar al Ayuntamiento el 10% del valor del arbolado. Esto es debido a que se trata de una finca de propiedad comunal, aunque la plantación fue realizada por don José Juan Mendeguía.

3º) Una vez que finalice la corta, los herederos de don José Juan Mendeguía dejarán de tener derecho alguno en la finca.

**3 - MARGARITA ARIZTEGUI OYARZABALEK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO-HITZARMENA.**

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena.

Espedientean, Margarita Ariztegui Oyarzabal andreak sustaturiko hitzarmenaren zirriborroa ageri da. Hitzarmenaren xede den azalera 11.684 m2koa da. Azalera horretatik, 2.921 m2 partikularrarentzat izanen dira eta gainerako 8.763 m2-ak, berriz, herri-jabetzakoak.

Dokumentu horrek dagokion txostena darama, Basartea S.L. enpresako Andrés Zelaieta teknikari jaunak eginikoa.

Halaber, bada Nafarroako Gobernuko Komunalen Atalak 2013ko maiatzaren 28an idatzitako aldez aurretiko aldeko txostena. Han adierazten denaren arabera, 3. finka Lesakako hirigintzako Udal Planaren arabera baso-lurzoru ez zuhaizti gisa sailkatuta dago, eta 1.a eta 2.ena, nekazaritza eta abelazkuntza produktibitate ertaineko lurzoru gisa.

Planaren Hirigintza-Araudi Orokorraren 52. artikuluaren arabera, horrelako lurzoruetan, familia bakarreko etxebizitzak eraikitzen ahal dira, betiere zenbait baldintza betetzen badira. Puntu horri dagokionez, 2013ko abuztuaren 2an, sustatzaileak idazki bat aurkeztu zuen (Erregistro Orokorreko 2.245. sarrera) eta hartan adierazten du ez duela

**3 - CONVENIO TRANSACCIONAL DE BIENES COMUNALES PROMOVIDO POR MARGARITA ARÍZTEGUI OYARZABAL.**

En el Boletín Oficial de Navarra nº 131, de 23 de octubre de 1995, se publicó el Decreto Foral 457/1995, de 9 de octubre, que aprobaba las Bases del Convenio Transaccional sobre recuperación de bienes comunales en el municipio de Lesaka.

En el expediente consta el borrador del documento promovido por doña Margarita Arízteguí Oyarzabal. La superficie objeto de convenio es de 11.684 m2. De ellos 2.921 m2 serán para la particular y los restantes 8.763 m2 para el comunal.

El documento incluye el correspondiente informe, suscrito por el técnico de la empresa Basartea S.L. don Andrés Zelaieta.

Hay asimismo un informe previo favorable emitido con fecha 28 de mayo de 2013 por la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra. Según indica, la finca nº 3 está catalogada por el Plan Municipal de urbanismo de Lesaka como suelo forestal no arbolado y las nº 1 y 2 como de mediana productividad agrícola y ganadera.

Conforme al artículo 52 de la Normativa Urbanística General del Plan, en ese tipo de suelo resulta posible la construcción de viviendas unifamiliares, siempre que se cumplan determinadas condiciones. En referencia a este punto, el día 2 de agosto de 2013 la promotora presentó un escrito (entrada nº 2.245 en el Registro General) mediante

asmorik esleitzen zaion nekazaritza- eta abeltzaintza-produktibitate ertaineko lursailean eraikitzeko eta, hori hala, Udalak 2006ko ekainaren 9ko osoko bilkuran ezarritako baldintzak onartzen dituela.

Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Espedientean, orobat, Udaleko idazkariak abuztuaren 5ean eginiko txostena ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluak eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n. artikuluak (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1.) Margarita Ariztegui Oyarzabal andreak sustaturiko herri-ondasunen transakzio-hitzarmena onestea.

Horretarako, notario-eskrituran berariazko debekuak agertu beharko du, hitzarmenaren arabera berarentzat geratzen diren nekazaritza- eta abeltzaintza-produktibitate ertaineko lursailetan gutxienez hogeita bortz urtean -tartean hirigintza-plangintza aldatu eta eraikitzea onartzen ez bada- familia bakarreko etxebizitza isolatuak ez eraikitzeko. Debeku hori, gainera, Jabetza-Erregistroan inskribatu beharko da.

2.) Sustatzaileari jakinaraztea Herriko

la que señala que no tiene intención de edificar en el terreno de mediana productividad agrícola y ganadera que se le asigna, por lo que acepta las condiciones establecidas por el Ayuntamiento en sesión plenaria de fecha 9 de junio de 2006.

El borrador ha recibido asimismo el visto bueno de la Comisión de Montes del Ayuntamiento.

Figura igualmente en el expediente un informe emitido por el secretario del Ayuntamiento el día 5 de agosto.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto unánime de los concejales, con lo que se obtiene la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación exigida por el artículo 116.1 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra y el artículo 47.2 n de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local (modificada por la Ley 57/2003, de 16 de noviembre, de medidas para la modernización del gobierno local), acuerda:

1º) Aprobar el convenio transaccional de bienes comunales promovido por doña Margarita Ariztegui Oyarzabal.

Al efecto, deberá incluirse en la escritura notarial una prohibición expresa de edificar viviendas unifamiliares aisladas en los terrenos de mediana productividad agrícola y ganadera que quedan para ella en el convenio, durante un periodo mínimo de veinticinco años, salvo que ello fuera autorizado por una modificación del planeamiento urbanístico. Dicha prohibición tendrá que ser inscrita asimismo en el Registro de la Propiedad.

2º) Comunicar a la promotora que deberá

Etxera etorri beharko duela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikuluak dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

acudir al Ayuntamiento para firmarlo.

3º) Una vez cumplido lo dispuesto en el punto anterior, que se remitan copias diligenciadas de todos los documentos citados al Gobierno de Navarra, a fin de que éste proceda a su aprobación, de acuerdo a lo establecido en el artículo 14 de las Bases.

4º) Conforme a lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 30 de abril de 2004, el metro cuadrado de terreno rústico sujeto a convenio transaccional de bienes comunales se valorará en 0'16 euros.

**4 – BERAKO ETA LESAKAKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA, URAREN GOI HORNIDURA ARAUTZEKO.**

Espedientean ageri da hitzarmenaren testua. Hura ikusita, Osoko bilkurak aho batez honako hau erabaki du:

1 – Onartzea Berako eta Lesakako Udalen arteko hitzarmena, ur-hornidura arautzeko.

2 – Erabaki horren berri ematea Berako Udalari eta Nafarroako Gobernuko Toki-Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari.

**4 – CONVENIO ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE BERA Y LESAKA PARA LA REGULACIÓN DEL SUMINISTRO DE AGUA**

Consta en el expediente el texto del convenio. A la vista del mismo, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar el convenio entre los Ayuntamientos de Bera y Lesaka para la regulación del suministro de agua.

2º) Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Bera y a la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra.

**5 – HIRILURREKO ETA LANDALURREKO ONDASUNEN GAINEKO 2014KO KONTRIBUZIOA.**

Kontuan hartuta Nafarroako Kontsumo-Prezioen Indizea aitzineko urtean %2,7 goititu zela eta katastroa eguneratu gabe dagoela, Ogasun-

**5 - CONTRIBUCIÓN URBANA Y RÚSTICA PARA EL AÑO 2014.**

Teniendo en cuenta que el Índice de Precios al Consumo se elevó en Navarra un 2,7% durante el año anterior y que el catastro está sin actualizar, la

Batzordeak proposatu du kontribuzioak %4an igotzea 2014ko ekitaldirako.

Bertze alde batetik, Udala prozedura tramitatzen ari da katastro berriaren balioespen txostena onesteko, baina oraindik ezin da jakin ea heldu den urterako indarrean sartuko den. Horregatik, komenigarria da indarrean dagoen katastroari dagokion eguneratzea onartzea, hori erabiltzeko baldin eta bertzea 2014ko ilbeltzaren lerako ez bada ezarrita.

Hori dena aintzat hartuta, Udalbatzak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako akordio hauek hartu ditu:

1.) Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-tasa ekitaldi honetan %0,4603koa dena, 2014. urtean, %0,4787 izanen da.

2.) Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa egungo %0,4198tik %0,4366ra pasatuko da 2014an.

3.) Zerga-tasa horiek 30 egunez jendaurrean ikusgai edukitzea, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarrita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu ahal dezaten.

4.) Aitzineko puntuan aipatu den epean erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez bada, zerga-tasa horiek behin betiko onetsitzat emanen dira. Kasu horretan, lege-ondorioak izan ditzan, egoera hori, behin betiko testuarekin batean,

Comisión de Hacienda propone que se incrementen las contribuciones en un 4 % para el ejercicio de 2014.

Por otra parte, el Ayuntamiento está tramitando el procedimiento para aprobar la ponencia de valoración del nuevo catastro, pero no es posible determinar aún si el mismo estará en vigor para el próximo ejercicio. Por ello conviene aprobar una actualización correspondiente al catastro vigente, para aplicarla en el caso de que no se haya implantado el otro para el 1 de enero de 2014.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, el Pleno, con el voto unánime de sus miembros, adopta los siguientes acuerdos:

1º) El tipo impositivo de la Contribución Urbana, que durante el presente ejercicio es del 0,4603 %, se incrementará para el año 2014 hasta el 0,4787 %.

2º) La Contribución Rústica se elevará del actual 0,4198 % al 0,4366 % para el próximo año 2014.

3º) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

4º) Si no hubiera reclamaciones, reparos u observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

publicará esta circunstancia junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**6 – BIDASOAKO BIDE BERDEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.**

2013ko abuztuaren 23an Udaleko Erregistro Orokorrean jaso zen (2.409. sarrera), *Bidasoako bide berdea arautzen duen Ordenantzaren* testua, Bertizko Turismo Partzuergoak bidalia, zeinak behin-behinekoz onartzeko eskatzen duen.

Hori ikusita, Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1 – Behin-behinezko onestea *Bidasoako bide berdea arautzen duen Ordenantza.*

2 – Erabaki honen berri ematea Bertizko Turismo Partzuergoari.

**6 – APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA VÍA VERDE DEL BIDASOA.**

El día 23 de agosto de 2013 se recibió en el Registro General del Ayuntamiento (entrada nº 2.409) el texto de la *Ordenanza reguladora de la vía verde del Bidasoa*, remitido por el Consorcio Turístico de Bertiz, que solicita su aprobación provisional.

A la vista de ello, el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar provisionalmente la *Ordenanza reguladora de la vía verde del Bidasoa.*

2º) Notificar el presente acuerdo al Consorcio Turístico de Bertiz.

**7 – OIHAN JARDUERETARAKO LAGUNTZEI BURUZKO ESKAERA.**

Espedientean ageri da 2013ko abuztuaren 14an jasotako akordio-proposamena (2.359. sarrera udaleko Erregistro Orokorrean).

Hura ikusita, Osoko bilkurak honako akordio hau hartu du aho batez: Lesakako Udalak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari behar diren baliabideak abian jar ditzala eta behar diren erabakiak har ditzala Nafarroako Toki Entitateek oihangintza lanetarako egiten dituzten inbertsioak eta gure mendien etorkizuna bermatzeko, horretarako Nafarroako Toki Entitateak behar

**7 – SOLICITUD SOBRE LAS AYUDAS PARA ACTIVIDADES FORESTALES.**

Consta en el expediente la propuesta de acuerdo recibida el día 14 de agosto de 2013 (entrada nº 2.359 en el Registro General del Ayuntamiento).

A la vista de la misma, el Pleno adopta el siguiente acuerdo por unanimidad: el Ayuntamiento de Lesaka solicita que el Gobierno de Navarra ponga en marcha los mecanismos necesarios y adopte las decisiones preceptivas con el fin de garantizar las inversiones que las Entidades Locales de Navarra desarrollan en el ámbito forestal y se garantice el futuro de nuestros montes, dotando a las

bertzeko baliabide ekonomikoz hornituz, finantzagaitasun nahikoarekin inbertsio berriak egin ahal izan ditzaten.

Entidades Locales de Navarra de recursos económicos suficientes para poder realizar nuevas inversiones con suficiencia financiera.

**8 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (285.etik 322.era, biok barne).

**8 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (números 285 a 322, ambos inclusive).

Ondoren eta Toki-Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako aferarik proposatu.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se propone cuestión alguna.

**9 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK.**

Osoko bilkuren hasierari dagokionez, Ainara Flores zinegotzi jaunak honako hau galdetudu: "Ea posible den ordua zortzi terdiak edo bederatziak arte atzeratu".

Jarduneko presidenteak erantzun dio: "Hurrengo bikuran emanen da erantzuna".

Ondoren, Jose Luis Echegaray jaunak adierazi du: "Jakin izan dugu lehen alkateordeari,

**9 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

En relación al inicio de las sesiones plenarias, la concejal doña Ainara Flores pregunta: "a ver si es posible atrasar la hora hasta las ocho y media o las nueve".

El presidente en funciones responde: "Se contestará en la siguiente sesión".

Seguidamente, don José Luis Echegaray indica: "Hemos tenido conocimiento de que se le ha

Severiano Txoperena jaunari, eman zaiola alkatearen jornalaren %50a. Kontuan hartuta gai honi buruz ez zitzaigula deus ere aipatu, honako hau jakitea gustatuko litzaiguke: Zertan oinarritu den erabaki hau; zer kontzeptuan ordaindu behar zaion; ea horrek berarekin daraman Gizarte Segurantzaren ordainketa ere; nork erabaki duen zinegotzi bati soldata jartzea, noiz, zergatik eta zein diren betebeharrak, ardurak, etabar erabaki horretan jatorria dutenak. Izan ere, Etxabide jaunak segitzen badu Udalbatza honetako alkate izaten, ez dugu ulertzen Bilduko zinegotzi baten askatzearen egokitasuna altxor publikoaren kontura. Beraz, gustatuko litzaiguke egin ditugun galdera guziak argitzea, erabateko argitasunarekin eta ez erantzun nahaspilatu eta protekzionista bat jasotzea, orain arte ohituta gaituzten moduan, iruditzen zaigulako gai hau, oposizioari ezta aipamenik ere egin gabe erabakia, froga bat dela Bilduk bere estrategia segitzen ez duten pertsona guziei ezartzen dien diskriminazioarena.".

Severiano Txoperena: "Hurrengoan erantzunen da".

Aipaturiko egunaren ilunabarreko zortziak eta hamazazpi minutu direla, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

concedido al primer teniente de alcalde, señor Severiano Txoperena, el 50% del sueldo del alcalde. Teniendo en cuenta que absolutamente nada se nos había comentado de este tema, nos gustaría saber: en base a qué se ha tomado esa decisión, en qué concepto se le va a abonar, si también conlleva el abono de la Seguridad Social, quien ha decidido poner sueldo a un concejal, cuando, circunstancias y obligaciones, responsabilidades, etc. que se derivan de esa decisión. Puesto que si el señor Etxabide sigue siendo el alcalde de esta corporación, no entendemos la oportunidad de la liberación a costa del erario público de un concejal de Bildu. Por lo tanto, nos gustaría se nos aclarara con total claridad todas las preguntas que hemos realizado y no una respuesta embarullada y proteccionista, como a las que nos tienen acostumbrados hasta ahora, ya que consideramos que este tema, decidido sin ni siquiera un comentario a la oposición, es una demostración de la discriminación a la que somete Bildu a todas las personas que no siguen su estrategia".

Severiano Txoperena: "Se contestará en la siguiente".

Siendo las veinte horas y diecisiete minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.